

# EUSKARAREN JATORRIAREN II. BILTZARRA



Donostia - Arantzadi, 2006ko urriaren 7an

## Egitaraua

09:45 Harrera, akreditazioa eta liburuen erakusketa

10:00 Agurra eta aurkezpena

10:15 **Jorge M<sup>a</sup> Ribero-Meneses**: *El carácter autóctono y origen Prehistórico del Ezkara o Euskera*

11:00 **Iraide Ibarretxe**: *Las onomatopeyas vascas y el origen del euskara*

10:45 **Imanol Mugika Alberdi**. *Euskeraren adierazkera. Etorburuko esanaia*

12:30 **Jon Baltza**: *Euskararen egitura eta euskaldunen mundu sinbolikoa*

13:00 Mahai ingurua

16:00 **Vahan Sarkisian**: *Onomástica basko-armenia: Comparación a través de Reconstrucción*

16:45 **Jose Luis Aleman Marti**: *Elengoa, el lenguaje de los Cielos*

17:30 Tailerrak:

a) *Entzuketaren artea / El arte de la escucha*: **Pako Iriarte**

b) *Lectura de la lengua ibérica*: **José Antonio Arnaiz Villena**

18.45 Ekarpen libreak

19:00 Mahai ingurua

20:00 Biltzarraren amaiera



## 0. Aurkibidea

1. Aurkezpena .....	3
2. Jorge M <sup>a</sup> Ribero-Meneses: El carácter autóctono y origen Prehistórico del Ezkara o Euskera.....	7
3. Iraide Ibarre txé: Las onomatopeyas vascas y el origen del euskara .....	27
4. Imanol Mugika Alberdi. Euskeraren adierazkera. Etorburuko esanaia .....	41
5. Jon Baltza: Euskararen egitura eta euskaldunen mundu sinbolikoa.....	43
6. Vahan Sarkisian: Onomástica basko-armenia: Comparación a través de Reconstrucción..	47
7. Jose Luis Aleman Marti: Elengoa, el lenguaje de los Cielos .....	51
8. Pako Iriarte: Entzunketaren artea.....	59
9. José Antonio Arnaiz Villena: Lectura de la lengua ibérica.....	69
10. Elkarte antolatzaileak .....	87
11. Oharretarako orriak.....	89



## 1. Aurkezpena: soinuak barneratuz, hitzak sortuz



Leire Saitua

Ikusi izan ditugu keltak, gure ondotik pasatzen, erromatarrak geroago, germanoak, berebereak arabeeekin batera, frankoak.... Ikusi izan dugu Gaztela sortzen, eta honen ondorengoak Euskal Herriaren zati haundi batez jabetzen. Denboran hurbilago, gerora "frantsesak" deituko zirenak ere ikusi izan ditugu, eta baita "espainolak" izango zirenak ere...

Guztiengandik hartu behar izan dugu zer edo zer.

Eta hementxe diraugu.

Ikusi izan ditugu ustez deituriko iberoak, gure ondoan bizitzen, hauen desagertzea ere ezagutu dugularik. Iparralderantz, euskaldunak omen ziren akitanoak euki izan ditugu auzoko, gero haietaz besterik jakin ez badugu ere.

Eta hementxe diraugu.

Ikusi dugu erromatarren inperioa ustelkeriaz desagertzen; berdintsu godoen erresumaldiak, usteltzen. Nafarroako Erresuma eratzea ere lortu genuen euskaldunok, bi garai ezberdinetan gaurko Euskal Herri osoa hartzen zuelarik, baina nagusiki erdaraz funtzionatzen zuen erresuma hori desagertzen ere ikusi izan dugu. Gaztelauen ondorengoek itsasoaz bestalde sortutako inperioaren apurketa mailakatua ikusi izan dugu, berdintsu frankoen ondorengoek sortutakoa ere.

Eta hementxe diraugu.

Gaskoiera, katalanera, aragoiera..., gaztelaren sorreretan zer ikusirik eta eraginik ere euki izan dugulakoan gaude.

Eta hementxe diraugu.



Eta esandako guzti hau etxean gertatzen eta gertarazten lagundu dugu, onerako zein txarrerako, baina ez gaituzte asetzen gure jatorriaz aritzen diren 30 teoria edota esperientzia ezberdinek.

Horrexegatik antolatu genuen, joan den urtean, euskararen jatorria aurkitzeko kongresua, hau da, Euskararen Jatorriaren I Biltzarra, Mikoleta, Euzko Izaera, Bizi&Hitza eta ENA elkarteok, 11 ponentziagile eta 60 bat esku hartzailearen artean.

Horrexegatik ospatzen dugu gaur, gai berberaren inguruan, Euskararen Jatorriaren II Biltzarra, hainbat batzar eta hartuemon berriren ostean.

**Nondik datorren  
jakin  
dakien herriak,  
nora doan ere  
asmatu egiten duelako  
eta,  
dituen helburuak  
bideratzea  
lortzen,  
horretarako  
nahi, borondate eta gogo  
guztiak  
bateratuz.**

Horregatik prestatu dizuegu-prestatu diegu gure buruoi, gaurko egitarau hau:

Jon Baltza, filosofia irakasleak euskararen eta euskaldunen adimen ikuspegiaren arteko harremanaz hitz egingo digu.

Iraide Ibarretxe, Zaragozako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza irakasleak *Euskarazko onomatopeia hiztegi hirueleduna* prestatzeko egin duen lan lexikografikoa azalduko digu, baita hiztegi hau egiteko arrazoiak ere.

Imanol Mujikak, bere osasun egoera dela eta, ezin izango du parte hartu baina bere teoriak zabaltzeaz arduratzen diren Euzko Izaerakoak arituko dira berari egindako grabazioaz. Grabazio horretan, fonema bakoitzaren esanahia azaltzen du Imanolek eta, hori hartuta oinarri gisa, ehunka berben esanahia ulertzeko bide ematen.

Armeniako Unibertsitateko Vahan Sarkisian irakasleak, euskal-armeniar onomastikari buruzko txostena emango du. Aurreko biltzarrean ez zuen etortzerik izan baina *argia* hitzaren eremu semantikoari buruzko ekarpena egin zuen. Sarkisianek esandakoa da esaldi garrantzitsu hau: "nola jakingo dute euskara norantz doan, nondik datorren ez badakite?" euskararen jatorriaz herri honetan dagoen axolagabekeria kritikatu.

Estatu espainiarretik etorritako hiru partaide ere izango ditugu Biltzarrean:

Jose Luis Aleman ikerlea, jadanik hilda dagoen Alexandre Eleazar idazlearen teoriak arituko da. Horren arabera, aitzinean munduan hizkuntza bakarra hitz egiten zen, Elengoa. Bere iritziz, euskara horren ondorengoetariko bat da, asko aldatuta bada ere. Berau ondo ezagutzeak, mundu osoko gizakiok elkar ulertzea erraztu egingo digu.



Kantabriatik Jorge M<sup>a</sup> Ribero-Meneses ikerlea etorriko da. Bere iritziaren arabera, Europako zibilizazio zaharra Kantabria-Euskal Herria-Akitania eremuan sortu eta hemendik zabaldu zen gainerako eremuetara.

Antonio Arnaiz, Madrilgo Complutense Unibertsitateko irakaslea, biologo eta medikua bada ere, antropologian dago buru belarri sartuta azken urteotan eta gene eta hizkuntzen arteko harremanez argitaratu ditu hainbat liburu. Antoniok urte mordoa darama galdutako hizkuntzak ikertzen: hititera, etruskoera, minoikoera... Hizkuntza askotan aurkitu dira euskararekin bat datozen hitzak: *kabia*, etab. Bere eskutik, hizkuntz tailer bat izango dute partaideek: iberiera zelan irakurri.

Pako Iriartek emango du bigarren tailer bat: *Aditzak nola entzun behar diren*.

Txosten eta tailerrez gain, etorritakoek ere izango dute ekarpenak egiteko aukera, egingo diren bi mahai inguruetan.

Halaxe ba!

Ez gara hizkuntzalaritzaz edota euskaralaritzaz bakarrik arituko, ez.

Jatorriaren misterioak hurrunago eta sakonago eramaten bait gaitu.

Abiatu gaitezen beraz, elkarrekin, jatorria topatzeko antolatutako bidai hontan.

**Hementxe baitiraugu,  
bizi,  
eta bizi iraungo.**

Donostian, 2006ko urriaren 7an

